

Nafarroako Gobernuak, 2023ko otsailaren 8an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2023ko otsailaren 8an hartua, Nafarroako Gobernuaren Publizitate Instituzionalaren 2023rako Plana onesten duena.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak berea du publizitatea eta bestelako sustapen-jarduerak edozein euskarritan egiteko kontratuak gauzatzeko eskumena (hala ezartzen baitu Nafarroako Foru Administrazioaren eremuan laguntza kontratuak egiteko eskumenak berriz arautzen dituen abenduaren 17ko 255/2007 Foru Dekretuaren 4 artikulua, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuaren 81. eta 86. artikuluei dagokienez).

Egokitzat jo da, kudeaketa publikoan gardentasuna bermatze aldera, behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea Nafarroako Gobernuaren 2023. urteko plangintza instituzionala. Horretarako, publizitatea emanen zaie publizitate kanpaina nagusiei, hots, 50.000 euroko inbertsioa edo handiagoa aurreikusita dutenei. Herritarrentzat baliagarria da, horren bidez baitakite publizitatera bideratutako baliabide ekonomikoak zein gai eta helburutan erabiltzea planifikatu den, benetan egindako zerbitzu publikoa ebaluatu ahal izateko; eta, gainera, publizitate-merkatuari aukera ematen dio Foru Administrazioak agian sortuko dituen negozio-aukerak ezagutzeko, hura baita gure erkidegoko publizitate-eragile garrantzitsuenetako bat.

Erabaki honetan ezarritako plangintzak Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusitik finantzatuko diren publizitate ekintzak aurreikusten ditu, eta haien egutegia ezartzen. Halaber, bertan sartzen dira beste departamentu batzuek egindakoak ere, horien kopuruak aipatu Zuzendaritza Nagusiaren esku utzita, kasuan kasuko kontratuak egin ahal izateko.

Publizitatea kudeatzeaz Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua arduratzen denez zeharka, baina Foru Administrazioiko departamentu eta erakunde autonomoen komunikazio ekintzak islatzen dituenek, Nafarroako Gobernuak onetsi beharra du proposatutako plangintza (erabaki honekin batera erantsi da).

Publizitatea kudeatzeko, lehentasunak ezartzen dira, baliabideak mugatuak direlako; jarduerak planifikatzen dira; emaitzak ebaluatzen dira; eta kudeaketa gardena da. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren publizitatea kontratatzeko gastuen kontu zehatza ematen da, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, open data formatuan.

Publizitate instituzionala azaroaren 11ko 1/2003 Foru Aginduaren arabera kontratatzen da: Foru Agindu hori Nafarroako Gobernuko eledun den aldetik Toki Administrazioiko kontseilariak emana da, eta Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioko publizitate instituzionala kontratatzeko irizpideak zehazten ditu, publizitate instituzionalaren inbertsioa arautzen du, eta ezartzen du zabalkundea dela komunikabideetan publizitatea banatzeko oinarrizko irizpidea.

Laburbilduz, 2023rako publizitate plangintzak 14 publizitate-kanpaina nagusi eta 1.081.000 euroko inbertsioa aurreikusten du: horietatik 565.000 euro Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak finantzatzeko ditu; eta 516.000 euro kanpainak sustatzen dituzten unitateen aurrekontuen kargura ordainduko dira.

Zehazki, Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak 2023ko gastuen aurrekontuko honako partida hauen kargura finantzatzeko ditu plangintza horren publizitate-kontratuak: 060001 06120 2262 921500, «Publizitate instituzionala» izenekoa; eta 060001 06120 2262 921503, «Sare sozialetako publizitatea» izenekoa; zenbatekoak: 550.000 eta 15.000 euro, hurrenez hurren.

Era berean, planifikatutako kanpaina instituzionaletarako beharrezkoak diren publizitate-sormeneko kontratuak 060001 06100 2262 921500 partidatik ordainduko dira, «Sormena, infografiak eta bestelako material grafikoa eta ikus-entzunezkoa» izenekotik, 90.000 euroekin gehienez ere.

Bestetik, publizitate ekimenak sustatzen dituzten departamentuek beren partidetatik ordainduko dituzte kanpaina sektorialak, Nafarroako herritarrei interes orokorreko gaien, erabilera publikoko zerbitzuen eta Foru Administrazioak abiarazitako ekimenen berri emateko eta haiekiko sentikor bihurtzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposatuta,

## ERABAKITZEN DU

1. Nafarroako Gobernuaren Publizitate Instituzionalaren 2023rako Plana onestea, erabaki honekin batera erantsi den agiriaren arabera.

2. Erabaki hau helaraztea Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiari, Nafarroako Gobernuko departamendu guztietako idazkaritza tekniko nagusiei, Kontu-hartzailatza Nagusiari eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Kontu-hartzailatza Eskuordetuari, behar diren ondorioetarako".

Honen berri ematen dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan. Iruñean, 2023ko otsailaren 8an. GOBERNUAREN IDAZKARITZAKO ETA ARAUGINTZAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA, María Belén López Carballo.